INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6857

EBAZPENA, 2008ko irailaren 18koa, Energia eta Meategien zuzendariarena, Repsol Butano SAk Lemoizko udalerrian kanalizazio bidez gas propanoa banatzeko egindako eskabideari baimena ematen diona.

Erreferentzia: GUD-P-Le - CG-B-06/43 - GH/BMR

Repsol Butano SA enpresaren izenean eta ordez Isidro Fernández Etxabe jaunak, 2006-12-14an, aldez aurretiko administrazio-baimena eskatu du ondokorako: Lemoizko udalerrian, kanalizazio bidez gas propanoa banatzeko sarearen instalazioak eraikitzeko.

Espedientea ebazterakoan beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea eta aipatzea:

AURREKARIAK

Bat.– Repsol Butano SAk 2006ko abenduaren 14an Lemoizko udalerrian Petrolio-Gas Likidotua biltzeko zentroa eta banaketa sarea eraiki eta instalatzeko proiektua eta aldez aurretiko administrazio-baimenaren eskabidea aurkeztu zituen.

Bi.– 2007-01-16an, 2007-06-04an eta 2007-06-28an dokumentazioa osatzeko eta 2006-12-14an aurretiko administrazio-baimen eskariarekin batera aurkeztutako proiektuan zehaztu ez ziren alderdi batzuk argitzeko eskatu zuten Bizkaiko lurralde-bulegokoek. Argibideak emateko dokumentazioa 2007-06-19an aurkeztu zuten eta eskatutako agiri osagarriak 2007-08-02an.

Hiru.– Aipatu espedientearen jendaurreko erakustaldia egin zen, El Correo eta Deia egunkarietan iragarkia argitaratuaz 2007-11-28an, bai eta 2007-10-10eko EHAAn eta 2007-09-28ko BAOn ere; bestalde, Lemoizko udalera ere igorri zen iragarkia eta bertako iragarki-oholean egon zen ikusgai 2007-09-21etik 2007-10-15era bitartean; lehia egiteko proiekturik ez da aurkeztu ez eta aurkeztutako proiektuari buruzko alegaziorik ere.

Lau.– Repsol Butano SAk 2008-08-25ean Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Ondare Historikoaren Zerbitzuaren txostenaren kopia aurkeztu zuen, eta bertan adierazten denez, aurkeztutako proiektuak hartzen duen eremua interes arkeologiko txikikoa da. Lanen hasiera erakunde horri jakinarazi beharko zaio.

Bost.– Repsol Butano SAk 2007-06-19an Lemoizen Petrolio-Gas Likidotua biltzeko zentroa eta banaketa sarea eraiki eta instalatzeko proiektuaren eranskina aur-

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

6857

RESOLUCIÓN de 18 de septiembre de 2008, del Director de Energía y Minas, en relación a la solicitud de Repsol Butano, S.A. de autorización de la distribución de gas propano por canalización en el término municipal de Lemoiz.

Ref.ª: GUD-P-Le - CG-B-06/43 - GH/BMR

D. Isidro Fernández Etxabe, en nombre y representación de la empresa Repsol Butano, S.A. ha solicitado el 14-12-2006 la autorización administrativa previa para la construcción de las instalaciones de la red para distribución de gas propano por canalización en el término municipal de Lemoiz.

En la resolución del expediente es preciso tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Con fecha 14-12-2006 se presenta por parte de Repsol Butano, S.A. proyecto de construcción e instalación, junto a la petición de autorización administrativa previa del Centro de almacenamiento y red de distribución de G.L.P. en el municipio de Lemoiz.

Dos.– Con fechas 16-01-2007, 04-06-2007 y 28-06-2007, se solicitó por parte de la Oficina Territorial de Bizkaia se completara documentación y aclarasen ciertos aspectos que no se concretaban en el Proyecto presentado el 14-12-2006, junto a la petición de autorización administrativa previa. El 19-06-2007 fue presentada la documentación aclaratoria solicitada y el 02-08-2007 la documentación complementaria también solicitada.

Tres.– Sometido el expediente referenciado al trámite de información pública, se publicó el anuncio correspondiente en los diarios El Correo y Deia, ambos de fecha 28-11-2007, así como en el BOPV de 10-10-2007 y en el BOB de 28-09-2007, enviándose también dicho anuncio para su inserción en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Lemoiz, habiendo estado expuesto desde el 21-09-2007 al 15-10-2007, no habiéndose presentado ningún proyecto en competencia ni alegación alguna al proyecto presentado.

Cuatro.– Con fecha 25-08-2008, Repsol Butano, S.A. aporta copia del informe del Servicio de Patrimonio Histórico del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, según el cual, el proyecto presentado, lo define como «área de potencial arqueológico escaso», debiendo comunicarse a dicho organismo el inicio de las obras.

Cinco.– Con fecha 19-06-2007 se presenta por parte de Repsol Butano, S.A. «Anexo a proyecto de autorización administrativa previa para el Centro de almacena-

keztu zuen, hain zuzen ere proiektatutako instalazioei buruz lurralde-bulegoak egindako eskaera berriengatik.

Ebazpenak oinarri hauek ditu:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Espediente hau ebaztea Energia eta Meategien Zuzendaritzari dagokio, hain zuzen ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriaz (2005-10-27ko EHAA).

Bi.– Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak (1998-10-08ko BOE) eta Erregai Gasen Zerbitzu Publikoaren Arautegia onartzen duen urriaren 26ko 2913/1973 Errege Dekretuak (1973-11-21eko BOE) ezartzen dutenez, ezinbestekoa izango da aurretiko administrazio-baimena gasa banatzeko instalazioak eraikitzeko.

Hiru.– Espedientearen izapidetzeari zein edukiari dagokienez eta Repsol Butano SAk aurkeztutako argibideei dagokienez, egiaztaturik dago bete direla legeriak ezarritako betekizun eta baldintzak.

Lau.– Proiektua egiteko, eskatzaileak, hau da, Repsol Butano, SAk arlo ekonomikoan, finantzarioan, legezkoan eta teknikoan gaitasuna duela egiaztaturik dago.

Aipatutako lege-manuak, eta, oro har zein berariaz, gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honakoa

EBATZI DUT:

Bat.– Repsol Butano SAri Lemoizko udalerrian merkataritzarako gas propanoa banatzeko sarea eta biltzeko instalazioa eraikitzeko baimena ematea, honako ezaugarri hauekin:

– Gas propanoa biltzeko lurpeko bi depositu, unitateko 49,5 m^3 edukiarekin.

– Erregulazio-linea bi, unitateko eta orduko 500 kg-ko edukiera eta sarerako irteeran 1,75 kg/cm^2-ko gehieneko presioa dutenak.

– Dentsitate ertaineko polietilenozko hodien bidezko banaketa-sarea, SDR 11 motakoa; hodiak 90, 63 eta 40 mm-ko diametrokoak eta, hurrenez hurren, 128, 183 eta 2.082 metroko luzerakoak izango dira. Sare osoan zehar eta desbideraketa guztietan mozketa-balbulak egongo dira. Hartuneetarako material berbera erabiliko da, eta 20 eta 32 mm-ko diametroa izango dute.

– Kanalizazioa presio hauetarako diseinatzen da: gehienekoa 4 kg/cm^2, eta laneko gehienekoa 1,75 kg/cm^2.

– Aurkeztutako proiektuko memorian eta planoetan deskribatuta daude sarearen ibilbide osoa eta ezaugarriak.

miento y red de distribución de G.L.P.» en Lemoiz, motivado por los nuevos requerimientos realizados por la Oficina Territorial, sobre las instalaciones proyectadas.

Esta Resolución se basa en los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Energía y Minas es el órgano competente para la resolución de este expediente, de conformidad con lo establecido en el Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo (BOPV de 27-10-2005).

Dos.– La Ley 34/1998, de 7 de octubre (BOE de 08-10-1998), del Sector de Hidrocarburos, y el Reglamento de Servicio Público de Gases Combustibles, aprobado por RD 2913/1973, de 26 de octubre (BOE de 21-11-1973), establecen la exigencia de la autorización administrativa previa para la construcción de instalaciones de distribución de gas.

Tres.– En la tramitación del expediente y en el contenido del mismo, así como en aclaraciones de Repsol Butano, S.A., queda acreditado el cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidos por la legislación en la materia en cuestión.

Cuatro.– Asimismo, queda acreditada la capacidad legal, técnica y económico-financiera del solicitante, Repsol Butano, S.A., para la realización del proyecto.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

Uno.– Autorizar a Repsol Butano, S.A. la instalación de almacenamiento y red de distribución de gas propano comercial en el término municipal de Lemoiz, con las siguientes características fundamentales:

– Dos depósitos enterrados para almacenamiento de gas propano de 49,5 m^3 de capacidad c/u.

– Dos líneas de regulación con una capacidad unitaria de 500 kg/h, con presión máxima de salida a la red de 1,75 kg/cm^2.

– Red de distribución mediante tuberías de polietileno de media densidad, tipo SDR 11, de diámetros 90, 63 y 40 mm, con una longitud de 128, 183 y 2.082 metros respectivamente, incorporando válvulas de corte a lo largo de la red y en todas derivaciones. Para las acometidas se utilizará el mismo material, con diámetros de 20 y 32 mm.

– La canalización se diseña para una presión máxima de 4 kg/cm^2, con una presión máxima de trabajo de 1,75 kg/cm^2.

– El recorrido completo de la red y todas sus características están descritas en la memoria y planos del proyecto presentado.

Bi.– Baimen honek honako baldintzak bete beharko ditu:

1.– Horniketa egingo den aldea mugatzea eta bai alde horretan eskatzaileak sarea hedatzeko dituen konpromisoak ere, 2006ko maiatzaren 30eko 02 zenbakiko planoan zehaztu beharko dira.

2.– Baimen honen bidez berretsitako konpromisoaren ondoriozko obligazioak betetzeko berme gisa 8.634 (zortzi mila seiehun eta hogeita hamalau) euroko fidantza aurkeztu beharko du Repsol Butano SAk, bi hilabeteko epean, betiere urriaren 7ko 34/1998 Legeko 73.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriaz. Uztailaren 21eko 1775/1967 Dekretuko 11. artikuluaren 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriaz, eskudiruan edo Estatuko baloretan edo banku-abalen bidez aurkeztu beharko da fidantza hori, Euskal Autonomia Erkidegoaren Gordailuen Kutxa Nagusian; edo, bestela, aseguru-kontratuaren bidez, Aseguru Pribatua antolatzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen, abuztuaren 2ko 33/1984 Legearen eta Espainia EEEri atxikitzeko itunaren ondoriozko konpromisoei egokitzeari buruzko ekainaren 6ko 1255/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren menpeko aseguru erakundeek emandakoa. Instalazioak baimendu eta horiek egiteko baimenean ezarritako epeetan eraiki ondoren eta, halaber, eskudun lurralde organoak haiek martxan jartzeko akta edo aktak formalizatu ondoren, Repsol Butano SAri fidantza itzuliko zaio.

3.– Instalazioak burutzeko epea 12 hilabetetik beherakoa izango da, baimena azkenekoz argitaratzen denetik hara.

4.– Instalazioak guztiz edo zati baten, martxan jartzeari buruzko akta formalizatzen den egunetik harako 30 egunetik beherako epean hasi beharko du gasa eroaten Repsol Butano, SAk.

5.– Instalazioek honako arautegi honetan ezarritakoa bete beharko dute: Industria eta Merkataritza Ministerioaren 2006ko uztailaren 28ko 919/2004 Errege Dekretua (2006-09-04ko BOE, 211. zenbakia), Gaserregaiak erabili eta banatzeko arautegi teknikoa onartu zuena.

6.– Banaketa-sareko adar bakoitzak bereizketa-giltza izan beharko du.

7.– Arauzko arrazoiak direla-eta eraikineko giltza bazter baliteke ere, hartune-giltzak eduki beharko ditu sareak.

8.– Horniketa seguruago eta malguagoak erdiesteko eta gasaren alorreko aurrerakuntza teknikoei erantzuteko taxutu beharko dira instalazioak, eta, bereziki, gas naturala kanalizatzeko ere erabili ahal izateko.

9.– Hasierako baimena eman zuen agintaritzari jakinarazi beharko zaio instalazio hauek transmititzearena.

10.– Eskatzen duten kontsumitzaile guztiei egingo zaie kanalizatutako gas erregaien horniketa, betiere

Dos.– La presente autorización estará sujeta a las siguientes condiciones:

1.– La delimitación de la zona en la que se debe prestar el suministro, así como los compromisos de expansión de la red del solicitante en dicha zona se determinan por el plano n.º 02 de fecha 30-05-2006.

2.– Repsol Butano, S.A. constituirá en un plazo inferior a 2 meses una fianza por 8.634 euros (ocho mil seiscientos treinta y cuatro) en garantía del cumplimiento de sus obligaciones derivadas de su compromiso ratificado por la presente autorización, de acuerdo con lo previsto en el artículo 73.4 de la Ley 34/1998, de 7 de octubre. Dicha fianza se constituirá en la Caja Central de Depósitos del País Vasco, en metálico o en valores del Estado, o mediante avales bancarios, según lo dispuesto en el artículo 11, apartado 3, del Decreto 1775/1967, de 21 de julio, o mediante el contrato de seguro concedido con Entidades de Seguros de las sometidas a la Ley de 16 de diciembre de 1954 y Ley 33/1984, de 2 de agosto, sobre ordenación del Seguro Privado, y al Real Decreto Legislativo 1255/1986, de 6 de junio, de adaptación a los compromisos derivados del Tratado de Adhesión de España a la CEE. La fianza será devuelta a Repsol Butano, S.A. una vez que, autorizadas las instalaciones y construidas en los plazos que se establezcan en la autorización para el montaje de las mismas, los órganos territoriales competentes formalicen el acta o actas de puesta en marcha de las citadas instalaciones.

3.– El plazo para la ejecución de las instalaciones del caso será inferior a 12 meses a partir de la última fecha de publicación de la autorización.

4.– Repsol Butano, S.A. deberá iniciar la conducción del gas en el plazo inferior a 30 días a partir de la fecha en que se formalice el acta de puesta en marcha, bien parcial o total de las instalaciones.

5.– Las instalaciones deberán cumplir lo establecido en el Reglamento Técnico de Distribución y Utilización de Combustibles Gaseosos aprobado por Real Decreto 919/2004 del Ministerio de Industria y Comercio de 28-07-2006 (BOE n.º 211, de 04-09-2006).

6.– Cada ramal de la red de distribución incorporará llave de independización.

7.– La red incorporará, donde sea preciso, llaves de acometida independientemente de que pueda prescindirse de la llave de edificio por razones reglamentarias.

8.– Las instalaciones deberán preverse para responder a los avances tecnológicos en el campo del gas y lograr abastecimientos más flexibles y seguros y, en particular, para su conversión a canalizar gas natural.

9.– La transmisión de estas instalaciones deberá ser comunicada a la autoridad concedente de la autorización original.

10.– El suministro de combustibles gaseosos por canalización se realizará a todos los consumidores que lo

proiektuari doakion eremuko alde geografikoetan eta arauzko kalitate eta segurtasun baldintzetan.

Hiru.– Oscar Sanz Pérez eta Olga González Fernández industri ingeniari teknikoek izenpetuta eta Gipuzkoako Peritu eta Industria Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak 2006-11-06an eta 2007-06-07an hurrenez hurren bisatutako proiektuarekin eta proiektuaren eranskinaren arabera egin beharko dira baimentzen diren instalazioak.

Lau.– Baimen honek emateak ez du esan gura gas-instalazioen lanak egiteko beharrezko den beste baimen edo lizentziarik ematen denik, ez udal- edo probintziamailakorik ez eta bestelakorik ere; eta, berariaz, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Ondare Historikoaren Zerbitzuari dagokionik.

Bost.– Edozelan ere, baimen hau ez da ematen monopolio-erregimenean eta ez du ekarriko eskubide esklusiborik.

Sei.– Abian jartzeko akta lortzeko, Bizkaiko Lurralde Bulegoan honako hauek aurkeztu beharko dira: obra zuzendaritzari dagozkion ziurtagiriak, eraginpeko erakundeen proba eta baimenei dagozkienak, eta «as built» planoak, non gas-sarearen egoera eta sare hori beste zerbitzu batzuekin non gurutzatzen den zehaztuko baita.

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, ondorioz, gora jotzeko errekurtsoa ezar daiteke Berrikuntza eta Energia Sailburuordetzan, honako ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean; halaxe dago ezarrita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 18a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

demanden, comprendidos en las áreas geográficas pertenecientes al ámbito correspondiente al proyecto y en las condiciones de seguridad y calidad reglamentarias.

Tres.– Las instalaciones que se autorizan habrán de realizarse de acuerdo con el Proyecto y anexo a Proyecto, firmados por los Ingenieros Técnicos Industriales D. Oscar Sanz Pérez y D.ª Olga González Fernández y visados por el Colegio Oficial de Peritos e Ingenieros Técnicos Industriales de Gipuzkoa con fecha 06-11-2006 y 07-06-2007 respectivamente.

Cuatro.– La autorización se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial u otros, necesarios para la realización de las obras de las instalaciones de gas, y en especial, las del Servicio de Patrimonio Histórico del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Cinco.– La presente autorización en ningún caso se entenderá concedida en régimen de monopolio ni concede derechos exclusivos.

Seis.– Para la obtención de la puesta en marcha deberán presentarse en la Oficina Territorial de Bizkaia los correspondientes Certificados de Dirección de Obra, pruebas y permisos de organismos afectados, así como los planos «as built» donde se determine la situación de la red de gas y los cruces de ésta con otros servicios.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Innovación y Energía, en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2008.

El Director de Energía y Minas,
TXABER LEZAMIZ CONDE.